HIKA S.L.
*Antzerki Taldea*

eta

Itturri
Kulturgintza Zerbitzuak

# aurkezten dute

Egilea: Agurtzane Intxaurraga
Zuzendaria: Mireia Gabilondo




Antzezleak:
Mikel Laskurain eta Tessa Andonegi

# arrautza delikatuak

## -Sinopsia-

...Taberna batean ezohiko ikuskizun bat izango da: *emakume* batek ikerketa bat aurkeztuko die bertan txikiteoan ari diren pertsonei. Ikusleen artean bada bereziki axola zaigun *gizona*, bera ere txikiteoan. Eskuetan foileto bat du, euskaraz alfabetatzearen aldekoa, baina badirudi berak nahiko duela etxeko euskararekin.

*Emakumea* bere tesia aurkezten hasiko atzera eginez denboran, arbasoekin hasiz. Arbaso horiek ordea, *gizonaren* harridurarako, bere arbasoak dira eta berak ezagutu egingo ditu...

Hemendik abiatuko da istorioa, **hiru ardatzekoa:** lehenengoan Aurelioren aitona-amonen kontakizuna aurkeztuko zaigu; bigarrenean, *gizonaren* eta *emakumearen* arteko alegiazko edo benetako harremana azalduko da eta azkenik, muinera iritsiko gara, eta ikuslearen harridurarako, *gizona* eta *emakumearen* artekoa, ordurarterkoa alegia, beharbada fikzio hutsa izan déla erakutsiko digute. Istorioak bira osoa egingo du: *gizon-emakumeak* aktoreak dirá, arrautza delikatuak euskara kanpaina etxeak kontratatutikoak espot bat egiteko.

Ikuskizun honetan **fikzioa fikzioaren** barruan kokatuta duen formula erabiliko da beraz, baina amaiera arte hau dena ez da argituko. **Absurdoaren antzerkia** da arrautza delikatuak aurkezten diguna. Bi pertsonai hoien arteko gorabeherak; hizkera dela *(gizonaren* hizkera herrikoia eta kaletarra, arrunta eta *emakumearen* hizkera landuagoa, poetikoa eta eskolatua) eta joku dramatikoaren bidez, antzerki absurdo horri **komikotasuna** nagusituko die.

**Ikus-entzunezkoen baliabideak** erabiliko dira muntaia honetan. Osagarri garrantzitsua izango dira eta beren bidez bi pertsonaia hauen barne- mundua ezagutuko dugu, istorioaren subtestuak edo bigarren irakurketak emango diguna alegia.

Bukaeran, anonimoak ziren gizon-emakumeak izena izango dute: Peio eta Maria, Bi pertsonai hauen bidez bidai bat egingo dugu: arbasoetatik hasi, frankismotik pasatuta eta gure garaietara helduz. Guzti hau arraultza delikatuez hitz egiteko. **Gure HIZKUNTZA da arrautza delikatua eta zaindu beharra dago usain ederrik, zapore gozorik eta kolorerik ez galtzeko.**

Beraz, **Euskal Arrautza ofizialak gaurtik salgai?**

# ZERRENDA ARTISTIKOA

**Egilea:** Agurtzane Intxaurraga

**Antzezleak:** Mikel Laskurain

Teresa Andonegi

**Argazkiak:** Garikoitz Garaialde

**Makilaila:** Ainhoa Eskisabel

**Argi teknikaria:** Hika

**Eszenografia** errealizazioa: Jabi Molina

**Jantziak:** Hika

**Argi diseinua:** Jabi Molina

**Eszenografia diseinua:** Joseba Aierbe

**Diseinu grafikoa ITTURRI**

**Musika** Joxan Goikoetxea

**Produkzio burua:** Miren Gojenola

**Produkzio diseinua:** Hika

**Salmenta: ITTURRI** (telefonoa: **943 445667;** kontaktua: Eñaut)

Gure eskerrak argazkiak egiten lagundu diguten guztiei: Zuhaitz, Sergio. José Kruz, Txisku. Nahiko, Iñaki. Txiki. Rikardo. Jon I.. Jon A., Eñaut, Belen. Munto baserria eta Iñaki Eizagirre bcste askoren artean.